



Euskadiko elikadura burujabetza eta burujabetza energetikoa uztartze aldera

Klima larrialdiak, gure gizartearen bizi, lanegiteko eta garraiatzeko moduak eta ohiturak jarri ditu ezbaian. Gizarteak daramagun etengabeko hazkundeak natura kinka larrian ipintzen du eta larrialdiari aurre egiteko unean, fokoa, ekonomia zein garraiorako ezinbestekoa dugun erregai fosiletan jarri da.

Pandemiaren ondorioz mugikortasuna mugatzean eta are gehiago, orain urtebete, Errusiak Ukraina inbaditze ondorioz eragindako gerrak, mahaigainean utzi du, oso nabarmen gainera, besteak beste, Europako gizarteak bere egunerokotasunean ezinbestekoa duen energia (elektrikoa, gasa, atomikoa, ...) Europear Batasunetik kanpo dauden herrialdeen esku dagoela eta Europako gizarteak eta bere ekonomiak erabateko menpekotasuna duela nahiz energia iturri gutxi batzurengan nahiz herrialde gutxi batzurengan.

Honenbestez, Europear Batzordeko erakunde bateratuek eta baita ere, estatu eta herrialde guztiek, energia alorreko estrategiak garatu dituzte nahiz energiaren kontsumoa murrizteko nahiz energia iturriak dibertsifikatzeko

Euskadiko energia estrategian jasotakoa

Esan bezala, erakunde ezberdinetan eta maila guztietan, energia alorreko estrategiak garatzen ari dira, beti ere, Europa mailako konpromezuak eta norabidea gauzatzeko asmoz.

Honen aurrean, Eusko Jaurlaritzak "Euskadi 2030" estrategia energetikoa onartu du eta bertan finkatzen den helmuga hauxe litzake:

- Azken kontsumoan berriztagarrien kuota % 21 izatea lortzea.
- Administrazioaren instalazioetan energia-kontsumoa % 25 murriztu ahal izatea 10 urteko epean, haren eraikinen % 25ean energia berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak ezartzea.
- Errepideko garraioan energia alternatiboen % 25eko kuota lortzea, petrolioa baztertu eta ibilgailu jasangarriagoak erabiliz.
- Elektrizitatea sortzeko orduan kogenerazioaren eta berriztagarrien partaidetza areagotzea, horrelakoak 2015ean % 20 izatetik 2030ean % 40 izatera igaro daitezen
- Klima-aldaketa arintzen laguntzea urtean berotegi-efektuko gasen isurketak 3 Mt murriztuz neurri energetikoen bitartez; hau da, 2005ekoekin alderatuta BEGen isuriak % 35 murriztea.

Erregai fosilengandik dugun morrontzaz askatzeko, edo gutxitzeko, energia berriztagarriak instalatzeko garaian jarraitu beharreko planifikazioa ezinbestekoa da eta gaurkoz, soilik eolikoaren PTS badugu ere, gaur egun, tramitatzen hasiak dira energia berriztagarri guztiak bategiten dituen PTSa. Aurreko astean argitaratu berri da Euskal Herriko Aldizkari ofizialean PTSaren haserako onarpena.

Nekazal lurra, nekazaritzaren arnasa

Helmuga horietara heltzeko abian jarri beharreko azpiegitura energetikoak, batez ere, eguzki plaka parkeak eta parke eolikoak oso garrantzitsuak dira eta lurra asko erabiliko beharko denez, ondorioz, talka izugarria sor daiteke nekazal lurren ohiko eta berezko erabilpena, hau da, nekazaritzarena, eta nekazal lurretan garatu nahi diren erabilpen berrien artean.

Hori dela eta, nekazal lurrak, hoberenak gainera, eskuratzeko joera somatzen dugu erakunde eta energia sustatzaileen aldetik, batzutan energia sortzeko baldintza perfektuen aitzakian besteetan energia garraitzeko leku egokienak eta merkeenak direlakoan.

Honen aurrean, argi dugu, orain arte etxebizitza, industrialdea eta azpiegitura erraldoien aurrean izan dugun ixiltasunaz ezin dugula jarraitu eta agian beranduegi izan arren, nekazal lurrak nekazal jarduerarako babesteko jarrera proaktiboa behar dugula izan, bestela, jai dugu.

Nekazal lurrak defendatzeko unean ezinbestekotzat ditugu lur antolamenduko baliabideak eta araudiak, eta horien artean, azpimarratzekoak dira, bai DOT bai PTS agroforestala eta baliabide hauen potentzialaz baliatu beharko dugu bai balio haundiko nekazal lurrak babesteko bai nekazal lur makinagarriak defendatzeko.

Lurraren antolamendurako eta nekazal lurra babesteko baliabideak

Esan bezala, Euskadin egungo araudiak hainbat baliabide eta tresna ditu nekazal lurrak eta lehen sektorearen jarduna babesterakoan, hala nola, DOT eta PTS agroforestalak.

Araudi eta lege anitzetan azaltzen da, behin eta berriro, lur berri gehiago ez artifizializatzeko helburua eta horren harira, babes berezia aitortzen diote balio agrologiko haundiko lurrei.

Kontuan hartu beharreko marko juridikoa:

- Decreto 128/2019, de 30 de julio, se aprobó definitivamente la Modificación de las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV 24/09/2019).

- Decreto 449/2013, de 19 de noviembre, por el que se aprueba definitivamente la Modificación del PTS de los Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertientes Cantábrica y Mediterránea). (BOPV de 12 de diciembre de 2013).

- Decreto 177/2014, de 16 de septiembre, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco. (B.O.P.V. de 17 de octubre de 2014).

- Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

- Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana.

- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

- PTS de la energía eólica en la CAV

Bestalde, lur antolamenduko araudi eta legediaz gain, bada, beste arlo batzutako araudi eta legedi emankorra nahiz ingurumenarekin nahiz nekazaritzarekin lotuak, hala nola

- *Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.*

- *Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

- *Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.*

- *Ley 17/2008, de Agricultura y Política Agraria.*

Azken lege honek bereziki, nekazaritza jardueraren aitorpen soziala aldeztu du, ekoizpenaz haratago, gizartearentzako beste onura batzuk ere errekonozituz (ingurumena babestea eta birsortzea, biodibertsitatea, lurraldearen kudeaketa orekatua, kultura ondarea gordetzea,...).

Bestalde, hainbeste aldarrikatzen den ekonomia zirkularraren ikuspegitik, behar beharrezkotzat jotzen dugu, kutsatuta edo ustez kutsatutako lurren berreskurapena mahaigaineratzea, aurrez erabilitako lurrak eta azpiegiturak hala nola kutsatutako lurren berreskurapena, besteak beste garai bateko zabortegiak, lehenetsiz eta ingurumen azpiegitura bezala aitortuz.

Ustez kutsatutako lurren inbentarioa izan daiteke, guri dagokigun kasuan, nekazal lurrak berriak artifizializatu baino lehen, energia berriztagarriak instalatzerakoan lehentasuna izango luketen lurren zerrenda, helburu eta onura bikoitza egikaritzuz, bai energia berriztagarriak sutatzean bai kutsatutako lurrak berreskuratzean.

- *Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.*

- *Decreto 165/2008, Del 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo*

Elikadura Burujabetza eta/edo Burujabetza energetikoak

Izenburuak, modu oso ximplean agertzen duen bezala, euskal gizarteak eta bere izenean, euskal erakundeek, hautatu egin beharko dute ea uztargarriak ala kontrajarriak diren azken unean hain beharrezkotzat jotzen den burujabetza energetikoa eta bestalde, gure herriak aldarrikatzen duen elikadura burujabetza, egurraren beharrak tarteko.

Bi burujabetzak, ENBAren ustean, behar beharrezkoak dira eta uztargarriak noski. Gure ustean, logikoa den bezala, gure herriaren eta herritarren elikadura burujabetza lehenesten dugu beraz nekazal lurren erabilpena arautzean eta erabakitzean, elikagaien ekoizpena lehenesten dugu eta ondorioz, balio haundiko nekazal lurra gehiagorik ez galtzea jotzen dugu helburutzat eta noski, nekazal jarduerarako hain beharrezko ditugun malda xamurreko belardiak eta soroak.

ENBAren ustean bi burujabatezen arteko bizikidetzat lortzeko asmoz, nekazal jardueran aldarrikatzen dugun ahanteratza, energia jarduerak kokatzerakoan, ekoizpen azpiegituren tamaina eta dimentsioa nahi ditugu kontuan izan.

ENBAren konklusioak eta proposamenak

Honenbestez, bai tramitatzen ari den Energia Berriztagarrien PTSan bai bitartean, erakunde ezberdinen arteko adostasunaz, honako ildoak eta proposamenak mahaigaineratzen ditugu:

- *Elikadura Burujabetza eta Burujabetza Energetikoa Euskal Herriak dituen erronka bateragarriak direla uste dugu.*

- *Burujabetza hauek lortzeko bidean garatu beharreko jarduerak lurra behar dute ezinbestean eta honenbestez, nahiz DOT nahiz PTS agroforestalak nekazal lurra gisara aitortzen duen lurrean, nekazal jarduera lehenetsiko da eta energia jarduera kokatzerakoan, nekazal lurak ez diren lurak lehenetsiko dira.*

- *Elikagaien ekoizpena, energia berriztagarrien ahanztara, interes orokorreko jardueraren aitortza izango du erakunde guztietako legedian, energia berriztagarrien ekoizpena elikagaien ekoizpenaren gainetik ipini gabe.*

- *Energia jarduerarako instalazioak sustatzean beren tamaina eta dimentsioa hartuko dira kontuan, autokontsumoa eta energia komunitateak lehenetsiz. Honen harira, instalazioen dimentsioa (haize erroten altuera adibidez) eta baserri gunekiko gertutasuna izango da kontuan, landa inguruneko baserritarren bizi-kalitatea ez okertzeko.*

- *Instalazioen kokapena erabakitzean alternatibak mahaigaineratzea eskatzen du legeak baina alternatiba errealak eta benetazkoak behar dute izan. Instalazioak kokatzeko garaian, kostu ekonomikoa soila ezin du izan irizpide nagusia, hori horrela balitz, alferrikakoak ditugu nekazal lurra babesteko plangintza eta lege-tresna guztiak.*

- *Baserritarrok prest geundeke, erakunde eta sustatzaileekin elkarlanean, energia jarduerarako instalazioak eta azpiegiturak non kokatu hautatzeko garaian, alternatiba ezberdinak mahaigaineratzeko.*

- *Hori bai, baserritar elkarte gisara esan beharrean gaude, DOT eta PTSan salbuespen eremuak ezarri beharko liratekeela bai irizpide agrologikoen ikuspuntutik balio haundiko lurak direlako bai nekazal jardueraren ikuspuntutik, malda xamurratetik, makinagarriak diren belardi eta/edo soroetan.*

- *Halaber, energia jarduerarako instalazioak eta azpiegiturak non kokatu hautatzerakoan, ustez kutsatutako lurren inbentarioa aintzat hartuko da eta lur hauek izango dute lehentasuna, kutsatutako lurak berreskuratzeko helburua egikaritzuz eta bestalde, aurrez erabilitako lurak, lur berriak artifizializatzen hasi gabe.*

- *Energia berriztagarriak sustatzerakoan hain gurea den egurraren biomasa lehenetsi beharko litzake, basogintza mundua suspertzearekin batera, biomasa industria moldatuz. Bide batez, erakundeetako eraikinetako berogailuetako erregailu bezala biomasa ezarri beharko litzake.*

Donostia, 2023-05-18